

Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko
ikasketari buruzko dokumentuak

Ikasten duten pertsona helduak Gipuzkoan

92. dokumentua
2023ko maiatza

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa
Ingurunekeo Departamentua



**ETORKIZUNA
ORAIN**

AURKIBIDEA

1.	Aurkezpena	3
1.1.	Aurkezpena	3
1.2.	Erabilitako metodologia eta definizioak	4
2.	Ikasten duten pertsonak	5
2.1.	Etengabeko ikaskuntzan parte hartzea.....	5
2.2.	Ikaskuntza, adina edo lortutako prestakuntza.....	8
2.3.	Ikaskuntza eta lan-merkatuarekiko lotura.....	10
3.	Zein dira ikasten duten pertsonak?	11
3.1.	Ikasten duten pertsonen tipologia	11
4.	Zein dira ikasten ez duten pertsonak?	13
4.1.	Ikasten ez duten pertsonen tipologia	13
4.2.	Pertsonek zergatik ez dute ikasten?	15
5.	Ondorioak	19
5.1.	Laburpena: emaitza nagusiak.....	19

1. Aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Europako desberdintasun maila baxueneko pertsonen komunitatea bihurtzea da Gipuzkoaren helburuetako bat. Horretarako, bizitza osoko ikaskuntza erronka bat da lurraldeko eragile guztientzat. Pertsonak gero eta aldakorragoa den gizarteari eta lan-merkatuari aurre egitea ahalbidetuko du bizitza osoko ikaskuntzak, eta erraztu egingo du gaitasun intelektual handiagoa eskatzen duten lanpostuetara egokitzea. Gaitasun horiek, ezinbestean, hiru trantsizioekin (teknologiko-digitala, energetiko-klimatiko eta osasun eta gizarte arlokoa) lotutako trebetasunekin konbinatu behar dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuak pertsonetikiko eta haien lanaren kalitatearekiko hartutako konpromiso honek, ezinbestean, kontuan hartu behar du Gipuzkoako ingurunea aldakorra dela. Ingurune horretan, ikaskuntzarako orientazioan eta pertsonen egokitze gaitasunean oinarritzen da bizitza osoko ikaskuntza; pertsonen enplegagarritasuna errazten duen palanka da, eta parte hartzen duten erakundeen eraldaketa bultzatzen du.

Ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako pertsona helduek (25 eta 74 urte artean) egindako ikaskuntza-jardueraren jarraipena lantzen du. Urtero (urteko lehen hiruhilekoa) egindako kontsultaren emaitzak biltzen ditu eta 2023ko ikaskuntza-jarduerekin lotuta pertsonen gai garrantzitsuetan oinarritzen da.

1.2. Erabilitako metodologia eta definizioak

Gipuzkoako pertsona helduek egindako ikaskuntza-jardueren berri izateko, urtero inkesta egiten da.

Definizioak¹ eta edukiak mantentzeak bermatzen du neurketaren jarraikortasuna eta, batez ere, nazioartean alderatu ahal izatea. Gainera, emaitzen aldi baterako alderagarritasunari eusteko, pertsoneri urte bakoitzeko otsailean egin zaie kontsulta sistematikoki.

Kontuan hartu diren ikaskuntza-kategoriak definitzen dira jarraian:

- Ikaskuntza formala: hezkuntza- eta prestakuntza-zentroetan egiten da eta aitortutako kualifikazioak eta diplomak lortzera bideratuta dago.
- Ikaskuntza ez-formala: modu antolatuan eta iraunkorrean egiten da, baina ez dago titulu ofizial bat lortzera bideratuta. Hezkuntza-erakundeen baitan nahiz kanpoan egin daiteke (bizitzan moldatzeko tresnak, lanarekin lotutako ikastaroak, kultura orokorra, pintura-eskolak...).
- Ikaskuntza informala: ikasteko asmoz egiten diren jarduerak dira, norbere kasa egiten dira, inolako erakundeetara joan gabe. Ez dago ikaskuntza ez-formala bezain egituratuta, adibidez, familian izaten diren ikaskuntza-jarduerak, lantokikoak, edo pertsona bakoitzaren eguneroko bizitzakoak izan daitezke.

Bizitza osoko ikaskuntzako parte-hartze tasa² ikaskuntza formaleko eta/edo ez-formaleko jardueretan pertsonen parte-hartzea oinarri hartuta eratzen da.

¹ Eurostaten metodologia.

² Ikaskuntza informalak osatzen du ikaskuntzaren ikuspegi orokorra, baina ez dira aipatutako zenbaketan kontuan hartzen, oso subjektiboa baita –norbere kontura ikasten dena–, eta oso irregularra da herrialde batetik bestera. Iturria: Eurostat.

2. Ikasten duten pertsonak


2.1. Etengabeko ikaskuntzan parte hartzea

Gipuzkoako hamar pertsona heldutik ia lau ikasten ari dira

Gipuzkoako pertsona helduek (25-74) bitzita osoko ikaskuntza jardueretan duten partaidetza-tasa % 38,2koa da 2023an³. Hala, lurraldeko biztanle helduen ikaskuntzako parte-hartzea ez da % 40ra iritsi ondoz ondoko hiru ekitalditan.

1. grafikoa Ikasten duten pertsonak, sexuaren arabera. 2021, 2022 eta 2023

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua

³ Titulu ofiziala lortzera (ikaskuntza formala) bideratutako eta modu antolatuan eta iraunkorrean egin arren, titulurik ez duten (ikaskuntza ez-formala) ikaskuntza-jarduerak biltzen ditu.

Biztanleriaren parte-hartzea % 40 baino apur bat baxuagoa da 2020tik, oraindik pandemia agertu gabe zegoenetik⁴. Hori dela eta, parte-hartzearen beheranzko joera egiturazko zerbait izan daiteke, eta hurrengo kontsultetan baieztatuko da hori. Nolanahi ere, 2021, 2022 eta 2023ko emaitzak ez dira pandemiaren aurreko parte-hartzearen oso ezberdinak. Izan ere, pandemian zehar teleikaskuntza indartu zen, ikaskuntza-dinamikak mantentzeko sistema gisa.

Ikaskuntzako parte-hartzean ez dago ia alderik generoaren arabera

Ikaskuntza-jardueretako parte-hartzea oso antzekoa da bi kolektiboetan (% 38,6koa emakumeen artean eta % 37,9koa gizonen artean). Aurreko kontsultetan ere joera bera ikus zitekeen, 2022an izan ezik. Urte hartan apur bat handiagoa izan zen gizonezkoen parte-hartzea. Une jakin bateko genero-arrakala txiki hori alde batera utzita, ikasteko ohitura antzekoa da gizonen eta emakumeen artean eta, orokorrean, ratioa handiagoa izaten da emakumeen kasuan.

Denbora-tarte zabalagoa aztertuz gero, honako hau ikus dezakegu:

- Ez emakumeak, ez gizonak, ez dira pandemiaren aurreko ikaskuntzako partaidetza-tasara iritsi 2023an (2020an % 42,4 eta % 38,3, hurrenez hurren)
- Pandemiaren geroztik (2021etik aurrera), txikitu egin da parte-hartzearen genero-arrakala: 2019an eta 2020an ehuneko lau puntutik gorakoa zen, eta, 2023an, ehuneko 0,7 puntura jaitsi da.
- 2023an, 2022ko emaitzekin alderatuta, hazi egin da emakumeen parte-hartzea (ehuneko +0,9 puntu); gizonena, berriz, jaitsi (ehuneko -2,7 puntu).

⁴ Otsailean egiten zaie kontsulta pertsonari, eta kontsultaren aurreko hamabi hilabeteetan zehar ikaskuntzan izandako parte-hartzeari buruz galdetzen zaie. 2020ko martxoaren 15a hartzen da pandemiaren hasiera-datatzat; hortaz, pandemiak ez zien eragin 2020ko emaitzei.

Ikaskuntza ez-formalak jarraitzen du izaten ikaskuntza mota nagusia

Aurreko urteetan gertatu den moduan, ikaskuntza formalean erregistratutako parte-hartzea baino hiru aldiz handiagoa da, gutxi gorabehera, ikaskuntza ez-formaleko parte-hartzea. Emaita hori berbera da gizonen zein emakumeen kasuan.

Hala, Gipuzkoako emakume helduen % 38,6k baieztatu dute kontsultaren aurreko hamabi hilabeteetan zehar bizitza osoko ikaskuntza-jardueraren batean parte hartu dutela; horietatik, % 31,3k ikaskuntza ez-formala egin dute eta, % 9,6k, formala.

Gizonen kasuan, Gipuzkoako gizon helduen % 37,9k adierazi dute ikaskuntza-jardueraren bat egin dutela; modalitate ez-formala (% 30,1) nabarmentzen da, modalitate formalaren aurrean (% 11,3).

Gainera, 2022arekin alderatuta, emakumeen ikaskuntza ez-formaleko parte-hartzeak gora egin du (ehuneko +1,8 puntu), eta, ikaskuntza formalekoak, behera (ehuneko -2,9 puntu). Aldiz, gizonen kasuan alderantzizkoa da egoera. Izan ere, ikaskuntza formaleko jardueretako parte-hartzea igo egin da (ehuneko +2,8 puntu), eta behera egin du ikaskuntza ez-formaleko partaidetzak (ehuneko -4,1 puntu).

1. taula Ikasten duten pertsonak, ikaskuntza mota eta sexua. 2021, 2022 eta 2023

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren %

	2021	2022	2023
Ikasten duten emakumeak	38,3	37,7	38,6
Ikasketa formala	11,3	12,5	9,6
Ikasketa ez-formala	31,0	29,4	31,3
Ikasten duten gizonezkoak	37,8	40,6	37,9
Ikasketa formala	8,3	8,5	11,3
Ikasketa ez-formala	32,5	34,2	30,1

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua


2.2. Ikaskuntza, adina edo lortutako prestakuntza

Hamar heldutik seik ikasten dute; seniorren artean, berriz, % 15ek

Ikasmina ikerketa-lerroarekin hasi ginenetik (2008an), pertsonen adinak gora egin ahala gutxiagoa ikasten dela baieztatu dugu. Dena den, 2023an ez da hori bete tarteko adinen kasuan (45 urtetik 54ra). Izan ere, bi urtez ohikoak baino baxuagoak izan dira partaidetza-tasak –batez ere, pandemiaren eraginez– eta, horren ondoren, pandemiaren aurreko ratioa berreskuratu –eta gainditu– du tarteko adineko pertsonen parte-hartzeak (% 43,5).

- Kotsultaren aurreko hamabi hilabeteetan ikaskuntza-jardueraren bat gin dutela baieztatu dute gazteen (25-34 urte) % 51,6k; tasak behera egin du 2022az gerotik (% 56,9). Ikasten duten 35-44 urte arteko pertsonen ehunekoak ere behera egin du (% 44,6; ehuneko -3,9 puntu).
- Ehuneko sei puntu egin du gora 45 eta 54 urte arteko pertsonen ikaskuntza-tasak. Gainera, azken urtean hobera egin duen talde bakarra da.
- 55 eta 64 urte arteko pertsonen % 29,3k adierazi dute azken urtean ikaskuntzan parte hartu dutela (ehuneko -1,3 puntu). Azkenik, % 15,5era jaitsi da ikasi duten 65-74 urte arteko pertsonen taldea (ehuneko -0,4 puntu).

2. grafikoa Ikasten duten pertsonak, adin-taldean arabera. 2021, 2022 eta 2023



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua.

Goi-mailako ikasketak dituztenen erdiek baino gehiagok ikasten dute

Orain arteko dinamikari jarraituz, pertsonaren ikasketa maila gorena zenbat eta altuagoa izan, orduan eta handiagoa da ikaskuntzan duen parte-hartzea.


Zehazki, goi-mailako ikasketak dituzten Gipuzkoako pertsona helduen % 56,8k parte hartu dute ikaskuntzan azken urtean. Zifra horrek gora egin du azken urtean (ehuneko +3,5 puntu), eta hezkuntza maila altueneko taldeak pandemiaren aurreko partaidetza-tasa berreskuratu du.

Gainera, bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen heren batek inguruk (% 31,2) adierazi du azken urtean ikasi egin duela; proportzio hori egonkor mantendu da aurreko urtearekiko (ehuneko -0,6 puntu).

Azkenik, lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen dagokie bilakaera okerreana. Izan ere, batetik, talde hori osatzen dutenen % 15,7k bakarrik adierazi dute azken urtean ikasi dutela. Eta, bestetik, azken urtean beherakada handiena izan duen bigarren taldea izan da (ehuneko -2,5 puntu).

3. grafikoa Ikasten duten pertsonak eta ikasketa maila. 2021, 2022 eta 2023

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeko Departamentua.



2.3. Ikaskuntza eta lan-merkatuarekiko lotura

Lana duten edo lan bila ari diren pertsonen (langabezian daudenek) ikasten dute gehien

Pertsonen lan-egoera erabakigarria da haien ikaskuntza-dinamikei dagokienez.

- Soldatapeko lana duten pertsonen erdiek baino apur batek gutxiagok ikaskuntza-jardueraren batean parte hartu dute azken urtean (% 46,0). Hala, apur bat jaitsi da 2022ko partaidetza-tasa (ehuneko -1,9 puntu).
- Langabezian dauden pertsonen kolektiboak izan du urte arteko bilakaerarik okerrrena: egoera horretan dauden pertsonen % 41ek esan dute azken hamabi hilabeteetan ikasi dutela (ehuneko -4,6 puntu).
- Dena den, areagotu egin da ikaskuntzan parte hartzen duten erretirodunen (ehuneko +0,5 puntu) edo lan-merkatuan sartu gabe dauden pertsonen (ehuneko +2,1 puntu) ehunekoa: % 18,8 eta % 10,6, hurrenez hurren.

Azken finean, pertsonen laneko egoerak bat egiten du ikaskuntzan duten parte-hartzearekin, eta ordainpeko lanarekin lotuta dauden pertsonak -lanean ari direnak eta/edo lan egin nahi dutenak- dira gehien ikasten dutenak, erretiratuekin eta/edo lan-merkatuan ez daudenekin alderatuta. Eraitza horiek lotuta daude motibazio profesionalarekin, hori baita irakaskuntzarako faktore traktorea.

2. taula Ikasten duten pertsonak eta enpleguarekiko duten harremana. 2021, 2022 eta 2023

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren %

	2021	2022	2023
Lan edo lanbide bat garatzen du	45,3	47,9	46,0
Langabezian	40,7	45,6	41,0
Erretiroa hartuta	21,1	18,3	18,8
Lan merkatura sartu gabe	7,7	8,5	10,6
Guztira	38,0	39,2	38,2

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua.

3. Zein dira ikasten duten pertsonak?

3.1. Ikasten duten pertsonen tipologia

Hirugarren mailako ikasketak eta ordainpeko enplegua dituzten 55 urtez azpiko pertsonak osatzen dute ikasten duten pertsonen oinarria

Azken urtean bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan parte hartu duen Gipuzkoako biztanleria helduaren ezaugarriak erakusten ditu erantsitako koadroak:

- Ez da alde handirik ikusten generoari dagokionez, baina emakumeen ekarpena apur bat handiagoa da (% 51,1; gizonena, % 48,9). 2022an apur bat handiagoa izan zen gizonen ekarpena, baina, aurten, 2021era arteko ikusitako banaketara itzuli gara.
- Pertsonen adinari dagokionez, ikasten duten lau pertsonatik hiruk baino gehiagok (% 76,0) 55 urte baino gutxiago dituzte, eta adin gutxienerako hiru taldeen ekarpenak gora egin du: 25 eta 34 urte artean dituzte % 20,3k, 35 eta 44 urte artean % 23,4k eta 45 eta 54 urte artean % 32,3k. Gainera, ikasten duten pertsonen % 17,5ek 55 eta 64 urte artean dituzte, eta % 6,5ek 65 eta 74 urte artean.
- Ikasketa mailaren arabera ikaskuntzan izandako parte-hartzeari erreparatzen badiogu, goi-mailako ikasketak dituztenen garrantzia ikus dezakegu. Zehazki, ikasten duten pertsonen % 60,2k hirugarren mailako ikasketak dituzte; ekarpen hori jaitsi egin da bigarren mailako ikasketak (% 30,9) eta lehen mailako ikasketak (% 8,9) dituztenen kasuan.

- Azkenik, ikasten duten pertsona gehienak lanean daude (% 75,6); gainerakoak langabezian dauden pertsonak (% 8,5), erretiratuak (% 10,5) eta lan-merkatura sartu gabeko pertsonak (% 5,3) dira.

Hala ere, ikaskuntza-jardueretan parte hartzen duen Gipuzkoako biztanleria helduaren (25-74 urte) profila hauei dagokie: 55 urtez azpiko emakumeak eta gizonak, goi-mailako ikasketak dituztenak, eta, batez ere, ordainpeko enplegua dutenak. Gainera, aurreko ekitaldiekin alderatuta, profil hori mantendu egiten da.

3. taula Ikasten duen biztanleriaren ezaugarriak. 2021, 2022 eta 2023

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren %

	2021	2022	2023
Generoa			
Gizona	49,7	51,9	48,9
Emakumea	50,3	48,1	51,1
Adina			
25-34 urte	26,3	23,6	20,3
35-44 urte	31,6	30,9	23,4
45-54 urte	20,4	22,3	32,3
55-64 urte	14,5	16,6	17,5
65-74 urte	7,2	6,7	6,5
Ikasketa maila			
Lehen mailakoak	10,5	8,0	8,9
Bigarren mailakoak	28,9	30,9	30,9
Hirugarren mailakoak	60,5	61,1	60,2
Lan-jarduerarekin lotuta duen egoera			
Lan edo lanbide bat garatzen du	75,0	76,4	75,6
Langabezian	10,9	9,9	8,5
Erretiroa hartuta	12,8	10,5	10,5
Lan merkatura sartu gabe	1,3	3,2	5,3
Guztira	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeo Departamentua.

4. Zein dira ikasten ez duten pertsonak?

4.1. Ikasten ez duten pertsonen tipologia

Adin altueneko pertsonak nagusitzen dira, eta lehen mailako edo bigarren mailako ikasketak dituztenak

Ikaskuntza-jarduerarik egin ez duten pertsona helduei dagokienez, honakoa ikus daiteke:

- Ikasten ez duten pertsonak ia berdin banatzen dira gizonen eta emakumeen artean, eta ikasten ez duen biztanleriaren erdia dagokio talde bakoitzari (% 50,3 emakumeak dira eta % 49,7 gizonak). Dena den, urtetik urtera emakumeak banaketa horretan pisua irabazten ari direla ikus daiteke (2019an, ikasten ez zuten pertsonen % 48,5 emakumeak ziren).
- 45 urteko eta gehiagoko pertsonak dira ikasten ez duten biztanleen % 70,2. Talde gazteei dagokienez, 35 eta 44 urte artean dituzte ikasten ez dutenen % 18k, eta 25 eta 34 urte artean % 11,8k.
- Ikasten duten pertsonen kasuan ez bezala, lehen edo bigarren mailako ikasketak dituzte ikasten ez duten Gipuzkoako pertsona helduen % 71,7k, eta % 28,3k dituzte goi-mailako ikasketak.
- Lan-egoerari dagokionez, ikasten ez duten pertsonen erdiek baino apur batek gehiagok (% 54,8) ordaindutako enplegua dute (ikasten duten lau pertsonatik hiru dira). Gainera, ikasten ez dutela dioten Gipuzkoako pertsonen % 7,6 langabezia-egoeran dago. Azkenik, ikasten ez duten pertsonen % 28,1 erretiroa hartuta daude, eta % 9,5 ez dira sartu ordainpeko lan-mundura.

Hala ere, aipatu behar da lan egiten duen eta/edo lan egin nahi duen kolektiboaren ikaskuntzako parte-hartzean hobetzeko tarte garrantzitsua dagoela; izan ere, laneko merkatuarekin duen lotura ikasteko, garatzeko eta gaitasunak hobetzeko motibazioa sustatzeko faktorea izan beharko litzateke.

Funtsean, azken urtean ikaskuntza-jardueretan parte hartu ez duten Gipuzkoako helduen profila honakoa da: 55 urtetik gorako emakumeak eta gizonak (biak berdin), lehen edo bigarren mailako ikasketak dituztenak eta, neurri handi batean, lanean daudenak. Ikasten duten pertsonen aurkako profila da ia.

4. taula Ikasten duen eta ikasten ez duen biztanleriaren ezaugarriak. 2023

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren %

	Ikasten duen biztanleria	Ikasten ez duen biztanleria
Sexua		
Gizona	48,9	49,7
Emakumea	51,1	50,3
Adina		
25-34 urte	20,3	11,8
35-44 urte	23,4	18,0
45-54 urte	32,3	22,3
55-64 urte	17,5	26,1
65 urte eta gehiago	6,5	21,8
Ikasketa maila		
Lehen mailakoak	8,9	29,5
Bigarren mailakoak	30,9	42,2
Hirugarren mailakoak	60,2	28,3
Lan-jarduerarekin lotuta duen egoera		
Lan edo lanbide bat garatzen du	75,6	54,8
Langabezian	8,5	7,6
Erretiroa hartuta	10,5	28,1
Lan merkatuta sartu gabe	5,3	9,5
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua.

4.2. Pertsonen zergatik ez dute ikasten?

Familiako erantzukizunen ondorioz ikasi ezina bihurtu da ikasteko oztopo nagusia berriz ere

Ikaskuntza-jardueretan parte hartu ez duten Gipuzkoako pertsona helduek azken hiru urteetan parte ez hartzeko arrazoiengatik inguruan egindako balorazioa jasotzen du erantsitako koadroak. Emaitez hau erakusten dute:

- Ikaskuntzan parte ez hartzeko adierazitako oztopo nagusia familiako erantzukizunak dira; ikasten ez duten pertsonen % 38,9k aipatu dituzte. Hainbat urtez izan zen ez ikasteko arrazoi nagusia, baina 2022an hirugarren postura pasatu ziren familiako erantzukizunak. Orain, berriz, parte hartzeko oztopo nagusia izatera itzuli da.
- Bigarren lekuan, ez ikasteko arrazoiak motibazio falta dela adierazi du ikasten ez duen biztanleriaren erdiak baino apur batek gehiagok (% 34,4) Hala, oztopo garrantzitsua izaten jarraitzen duen arren, pisua galdu du 2022arekiko (ehuneko -6,8 puntu), baina aurreko kontsultetan baino gehiagotan aipatu dute (2021ean % 27,4; 2020an % 22,8; edo 2019an % 21,6).
- Prestakuntza eta haien lan-ordutegia ez direla bateragarriak adierazi dute % 28,5ek; arrazoi horrek pisua irabazi du 2022arekiko (ehuneko +8 puntu). Eta, % 27,6ren ustez, haien ezagutzak nahikoa dira eta ez dute prestakuntza jasotzeko beharrik (ehuneko -4,6 puntuko urte arteko aldakuntza).

5. taula Azken 12 hilabeteetan ikaskuntza-jardueretan parte hartu izanaren arrazoiak. 2021, 2022 eta 2023

Ikasi ez duen 25 eta 74 urteko biztanleriaren %

	2021	2022	2023
Nire familia-erantzukizunek ez didate uzten	27,6	24,8	38,9
Motibaziorik ez dut	27,4	41,2	34,4
Prestakuntza ez da nire lan-ordutegiarekin bateragarria	23,2	20,5	28,5
Uste dut ez dudala beharrik, nahikoa ezagutza badut	24,0	32,2	27,6
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	20,6	11,3	11,5
Garestia da, ezin dut ordaindu	13,1	6,1	9,2

Hainbat erantzun

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua.

Dena den, oztopo desberdinak aipatzen dira generoaren arabera

Honako taula honetan ikus daitekeen moduan, ez ikasteko arrazoiak ezberdinak dira gizonen eta emakumeen kasuan. Hala, eta ikaskuntza-jardueretan parte ez hartzeko arrazoiak zerrendari dagokionez, honakoa ikus daiteke:

- Emakumeek familiako erantzukizunak aipatzen dituzte ikaskuntzan ez parte hartzeko oztopo nagusi gisa. Ikasten ez duten emakumeen ia erdiek aipatzen dute arrazoi hori (% 49,8). Dena den, gizonen kasuan, familiako erantzukizunak laugarren arrazoiak dira proposatutako arrazoiak zerrendan; ikasten ez duten gizonen % 27,8k adierazi dute.

Zentzu horretan, Gipuzkoan genero-arrakala handia dago familiako erantzukizunen ondorioz ikasteko zailtasunak izateari dagokionez (22 puntuko aldea). Halaber, 2021 eta 2022an zehar, baliteke ikaskuntzako parte-hartzea baldintzatuta egon izana, mugikortasunerako mugen ondorioz. Urte horietan zehar, familiako erantzukizunekin lotutako genero-arrakala murriztu egin zen (8,7 puntu eta 18,9 puntu), baina badirudi joera berreskuratzen ari garela berriz.

- Motibazio falta da gizonen ikasteko duten oztopo nagusia (% 39,8), eta emakumeek aipatzen duten bigarren arrazoiak da (% 29).
- Aldea handia da nahikoa ezagutza dutela uste izatearekin lotuta ere: gizonen % 35,4k dute uste hori, eta emakumeen % 19,9k (15,5 puntuko aldea).
- Gainera, gizonen % 30,0ek eta emakumeen % 27,1ek diote prestakuntza ez dela bateragarria haien laneko ordutegiarekin.
- Azkenik, gizonen zein emakumeen gutxiagotan aipatzen dituzte adina edo prestakuntzaren kostua. Gutxi gorabehera, hamar pertsonatik batek (gizona edo emakumea) aipatu ditu arrazoi horiek ikaskuntzan ez parte hartzeko.

6. taula Ikaskuntzan parte ez hartzeko arrazoiak, generoaren arabera. 2023

Ikasi ez duen 25 eta 74 urteko biztanleriaren %

	Gizonak	Emakumeak
Nire familia-erantzukizunek ez didate uzten	27,8	49,8
Motibaziorik ez dut	39,8	29,0
Prestakuntza ez da nire lan-ordutegiarekin bateragarria	30,0	27,1
Uste dut ez dudala beharrik, nahikoa ezagutza badut	35,4	19,9
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	11,8	11,3
Garestia da, ezin dut ordaindu	8,2	10,3

Hainbat erantzun; bi baliorik handienak letra lodian

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua.

Adina ere bada ikasteko zailtasunak bereizten dituen faktorea

Azkeneko urtean ikasteko jarduerarik egin ez duten Gipuzkoako herritarren adinak honako hau erakusten du:

- Gazteenek (25-34 urte) adierazi dute oztoporik handiena prestakuntzak laneko orduekin bateratzeko zailtasuna dela (% 54,0).
- Helduenen artean (65 urte eta gehiago), motibazio falta nabarmentzen da ikasteko oztopo nagusi gisa (% 41,3k adierazi dute). Gainerako adin-taldeen kasuan, heren batek inguruk aipatu du ez ikasteko arrazoi hori.
- Tarteko adineko taldeetan, familiako erantzukizunak erabakigarriak dira ez ikasteko. Zehazki, ikasten ez duten 45 eta 64 urte arteko pertsonen % 45,4k eta 35 eta 44 urte arteko pertsonen % 35,5ek aipatu dute ez ikasteko arrazoi gisa. Dena den, gazteenen eta helduenen artean, oztopo gisa aipatutako bigarren arrazoia dira familiako erantzukizunak.
- Gainera, 35 eta 44 urte arteko pertsonen artean, % 35,8k adierazi dute prestakuntza ez dela bateragarria laneko ordutegiarekin, familiako erantzukizunen antzeko pisu erlatiboarekin.
- Gazteek askoz ere gutxiagotan adierazten dute nahikoa ezagutza dutela: 25 eta 34 urte arteko pertsonen % 15,2k. Aldiz, % 28,2, % 31,1 eta % 25,8 dira 35-44 urte arteko, 45-64 urte arteko eta 65 urte eta gehiagoko taldeen kasuan.

- Adinarekin lotutako oztopoa –ikasteko zaharregia dela uste izatea– gero eta gehiago aipatzen da adinean aurrera egin ahala. Ikasten ez duten 25 eta 34 urte arteko pertsonen % 1,8k aipatzen dute, eta 65 urtetik gorakoen % 26,3k.

7. taula Ikaskuntzan parte ez hartzeko arrazoiak, adin taldearen arabera. 2023

Adin-talde bakoitzean ikasi ez duten biztanleen %

	Adin-segmentuak			
	25-34	35-44	45-64	65 eta gehiago
Nire familia-erantzukizunek ez didate uzten	34,0	35,5	45,4	29,5
Motibaziorik ez dut	31,3	33,7	32,2	41,3
Prestakuntza ez da nire lan-ordutegiarekin bateragarria	54,0	35,8	30,8	3,6
Uste dut ez dudala beharrik, nahikoa ezagutza badut	15,2	28,2	31,1	25,8
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	1,8	4,1	10,0	26,3
Garestia da, ezin dut ordaindu	6,3	10,3	8,9	10,6

Hainbat erantzun; bi baliorik handienak letra lodian

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua.

5. Ondorioak

5.1. Laburpena: emaitza nagusiak

Azken kapitulu honek Gipuzkoako biztanleria helduaren (25-74 urte artean) parte hartzeari dagokionez, bizitza osoko ikaskuntza-jarduerekin eta horien ezaugarriekin lotuta egindako azterketaren ideia nagusiak biltzen ditu.

Ikasten duten pertsonak

- Gipuzkoako pertsona helduen (25-74 urte) % 38,2k ikaskuntza-jardueraren bat egin dute azken hamabi hilabeteetan.
- Emakumeek parte-hartze apur bat altuagoa izan dute ikaskuntzan: % 38,6, eta gizonek % 37,9.
- Ikaskuntza-tasak behera egiten du pertsonen adinak gora egin ahala, baina, 2023an, 45 eta 54 urte arteko pertsonen partaidetza-tasa handiagoa izan da gazteagoa den hurrengo adin-taldearena baino.
- Ikasketa maila gero eta altuagoa izan, orduan eta handiagoa izaten da ikasteko dinamika ere, batez ere, lan-merkatuarekin lotura duten pertsonen artean -lan egiten dutenak eta/edo langabezian daudenak-.

Ikasten ez duten pertsonak


- Ikasten duten pertsona helduen aurkako aldean, hain zuzen ere, ikasten ez dutenak daude. 2023an, Gipuzkoako pertsona helduen % 61,8k ez dute ikasi.

- Ikasten ez duten pertsonen profila ikasten dutenen guztiz bestelakoa da: 45 urtetik gorako pertsonak dira, lehen edo bigarren mailako ikasketak dituztenak, eta askok lan egiten dute.
- Familiako erantzukizunen ondorioz ikasi ezina bihurtu da ikasteko oztopo nagusia berriz ere. Dena den, alde handiak daude generoaren eta adinaren arabera. Genero-arrakala handia dago familiako erantzukizunen ondorioz ikasteko zailtasunak izateari dagokionez (22 puntuko aldea).

Erronka: bizi osoko ikaskuntzan Gipuzkoak duen tokiari eustea

- Dokumentu honek Gipuzkoako biztanleria helduaren bilakaera jasotzen du, eta horrek aukera ematen du biztanleriaren zahartzearen eragina kalibratzeko.
- Ikas dezaketen eta/edo ikasten duten pertsona helduen galera (aurreikus daiteke) izango da ondorioa, kolektiboaren zahartzea dela eta.
- Hala ere, bi funtsezko faktore daude pertsona helduek ikaskuntzarekin duten lotura sustatzen jarraitzeko:
 - o Lortutako ikasketa-maila hobetzea, horrek arrazoi profesionalengatik eta/edo pertsonalengatik edo aisialdiagatik belaunaldiрик zaharrenek ikasten jarraitzea ahalbidetu egiten baitu.
 - o Ikaskuntzako enpleguaren barruko eta arteko enplegarritasunerako tresna gisa gizartean aitortuta egoteko beharra: 1) ezinbestekoa da lortutako enpleguan zereginak ondo egiteko eta 2) lanera sartzeko eta/edo lanez aldatzeko zeharkako tresna da.

Finean, beharrezkoa da pertsonen bizi osoko ikaskuntza aitortu, sustatu eta ahalbidetzen duen lurraldea eraikitzeko lan egiten jarraitzea.

Izenburua:	Ikasten duten pertsona helduak Gipuzkoan 92. dokumentua, 2023ko maiatza
Sustapena eta finantzaketa:	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia 
Egilea:	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa lana:	Datakey, S.A.